

Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORETZA

Zk-1266

5/1998 ERABAKIA, 1998ko martxoaren 2koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko baso-suteetarako larrialdi plana onesten duena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko otsailaren 3an izandako bileran, Herrizaingo sailburuak proposatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko baso-suteen larrialdi plana onesteko Erabakia hartu zuen, eta hori jakinarazteko honakoa,

ERABAKI DUT:

Atal bakarra.– Jaurlaritzaren Kontseiluaren 1998ko otsailaren 3ko Erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Erabaki horrek Euskal Autonomia Erkidegoko baso-suteen larrialdi-plana onesten du eta erabaki honen eranskin bezala jasotzen da.

Vitoria-Gasteiz, 1998ko martxoaren 2a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta
Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
ENRIQUE LUCAS MURILLO DE LA CUEVA.

Otras Disposiciones

VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

Nº-1266

RESOLUCIÓN 5/1998, de 2 de marzo de 1998, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por el que se aprueba el Plan de Emergencia para Incendios Forestales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Habiendo adoptado el Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 3 de febrero de 1998, a propuesta del Consejero de Interior, Acuerdo por el que se aprueba el Plan de Emergencia para Incendios Forestales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y a los efectos de darle la publicidad debida

RESUELVO:

Artículo único.– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el Acuerdo del Consejo de Gobierno de 3 de febrero de 1998, por el que se aprueba el Plan de Emergencia para Incendios Forestales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que se contiene como Anexo a la presente Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de marzo de 1998.

El Director de la Secretaría del Gobierno
y de Relaciones con el Parlamento,
ENRIQUE LUCAS MURILLO DE LA CUEVA.

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ELKARTEKO
BASO-SUTEEN LARRIALDI-PLANA
ONESTEN DUEN JAURLARITZAREN
KONTSEILUAREN 1998KO OTSAILAREN 3KO
ERABAKIA

Emergentzien kudeaketarako apirilaren 3ko 1/1996ko Legearen 14.3 atalak metodologia tekniko-zientifiko zehatza eskatzen duten arrisku jakinei aurre egiteko plan bereziak lantzea aurreikusten du. Arriskuen azterketen emaitzekin bat etorritik, Autonomia Erkidegoan eragina duten eta Babes Zibileko Oinarrizko Arauean jasotzen diren arriskuen kasuan batik bat.

Ekainaren 24ko 153/1997 Dekretuz onartutako (138. EHAA, 1997ko uztailaren 21ekoa) «Larrialdiei Aurregiteko Bidea-LABI» Euskadiko Babes Zibileko Planak, bere III. idazpuruko, IV. atalburuko, 2. atalean aurreikusten du baso-suteak, besteak beste, plan berezi baten helburu izango direla. Beti ere, aipatutako Euskadiko Babes Zibileko Planaren I. idazpuruko 2.2 atalean bildutako Autonomia Erkidegoari eragiten dioten arrisku garrantzitsuenen sailkapenarekin bat etorritik.

Baso-suteetarako larrialdi-plana, berarekin zerikusia duten erakunde eta agenteen artean burutu dute eta Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen 1997ko irailaren 11ko Osoko Bilkuraren aldeko txostena jaso du. Ondoren, Babes Zibileko Batzorde Nazionalak, 1997ko abenduaren 19an, ahoz batez, dagokion homologazioa eman dio.

Horiek horrela izanik, Herrizaingo sailburuaren proposamenez eta aztertu ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak,

ERABAKI DU:

Erabaki honi erantsitako Euskal Autonomia Erkidegoko baso-suteetarako larrialdi plana onestea.

ANEXO

ACUERDO DEL CONSEJO DE GOBIERNO DE 3 DE
FEBRERO DE 1998 POR EL QUE SE APRUEBA EL
PLAN DE EMERGENCIA PARA INCENDIOS
FORESTALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA
DEL PAÍS VASCO

El artículo 14.3 de la ley 1/1996, de 3 de abril, de gestión de emergencias, prevé la elaboración de planes especiales para hacer frente a riesgos concretos cuya naturaleza requiera una metodología técnico-científica concreta, específicamente en el caso de aquellos riesgos contemplados en la Norma Básica de Protección Civil que tengan incidencia en la Comunidad Autónoma, conforme a los resultados que arroje el análisis de riesgos.

El Plan de Protección Civil de Euskadi, «Larrialdiei Aurregiteko Bidea-LABI», aprobado por Decreto 153/1997, de 24 de junio, (BOPV n.º 138, de 21 de julio de 1997), prevé en el apartado 2.º del capítulo IV de su Título III que será objeto de elaboración de un Plan especial, entre otros, el riesgo de incendios forestales, en coherencia con lo dispuesto en la clasificación de riesgos más significativos a los que está afectada la Comunidad Autónoma que se contiene en el apartado 2.2.º del Título I del citado Plan de Protección civil de Euskadi.

En la elaboración del Plan de Emergencia para Incendios Forestales han participado las diversas instituciones y agentes implicados por el mismo, habiendo sido informado favorablemente por el Pleno de la Comisión de Protección Civil de Euskadi en fecha 11 de septiembre de 1997, y habiendo obtenido la pertinente homologación, adoptada por acuerdo unánime de la Comisión Nacional de Protección Civil en fecha 19 de diciembre de 1997.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, previa la correspondiente deliberación, el Consejo de Gobierno,

ACUERDA:

«Aprobar el Plan de Emergencia para Incendios Forestales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que se anexa al presente Acuerdo.

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BASO-SUTEETARAKO LARRIALDI-PLANA

AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA
- 2.- PLANAREN HELBURUA
- 3.- MARKO LEGALA
- 4.- DEFINIZIOAK
- 5.- OINARRIZKO FUNTZIOAK
- 6.- APLIKAZIO-ESPARRUA
 - 6.1.- LURRALDEKO INFORMAZIOA
 - 6.1.1.- Orografia
 - 6.1.2.- Klimatologia
 - 6.1.3.- Baso-sistemak eta larre- eta artzantza-sistemak
 - 6.1.4.- Jabetzaren banaketa
 - 6.1.5.- Espazio natural babestuen sarea
- 7.- BASO-SUTEEN ONDORIOZ LARRIALDIKO BABEL ZIBILAREN PLANGINTZARAKO OINARRIZKO ELEMENTUAK
 - 7.1.- KOMUNITATEAREN ARRISKUAREN, URRAKORTASUNAREN ETA ZONIFIKAZIOAREN ANALISIA
 - 7.1.1.- Arriskua
 - 7.1.2.- Urrakortasuna
 - 7.1.3.- Lurralde Zonifikazioa
 - 7.2.- ARRISKU-GARAIAK
 - 7.3.- INFORMAZIO-SISTEMAK
 - 7.3.1.- Baso suteen datu basea
 - 7.3.2.- Informazio meteorologikoa eta baso suteetako arriskuaren iragarpena
 - 7.3.3.- Arrisku mapak
 - 7.3.4.- Baso suteen larritasun potentzial mailei buruzko informazioa
 - 7.3.5.- Planari esleitutako bitartekoak eta baliabideak
 - 7.3.5.1.- Datu-baseak
 - 7.3.6.- Baso-suteen simulagailua
 - 7.4.- BASO-SUTEEN SAILKAPENA LARRITASUN POTENTZIALAREN ARABERA
 - 7.5.- ESKUHARTZE-ESPARRUAK ZEHAZTU

ANEXO I

PLAN DE EMERGENCIA PARA INCENDIOS FORESTALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

ÍNDICE

- 1.- INTRODUCCIÓN
- 2.- OBJETO DEL PLAN
- 3.- MARCO LEGAL
- 4.- DEFINICIONES
- 5.- FUNCIONES BÁSICAS
- 6.- ÁMBITO DE APLICACIÓN
 - 6.1.- INFORMACIÓN TERRITORIAL
 - 6.1.1.- Orografía.
 - 6.1.2.- Climatología.
 - 6.1.3.- Sistemas forestales y silvopastorales.
 - 6.1.4.- Distribución de la propiedad.
 - 6.1.5.- Red de espacios naturales protegidos.
- 7.-ELEMENTOS BÁSICOS PARA LA PLANIFICACIÓN DE PROTECCIÓN CIVIL DE EMERGENCIA POR INCENDIOS FORESTALES
 - 7.1.- ANÁLISIS DEL RIESGO, VULNERABILIDAD Y ZONIFICACIÓN DE LA COMUNIDAD.
 - 7.1.1.- Riesgo.
 - 7.1.2.- Vulnerabilidad.
 - 7.1.3.- Zonificación Territorial.
 - 7.2.- ÉPOCAS DE PELIGRO
 - 7.3.- SISTEMAS DE INFORMACIÓN
 - 7.3.1.- Base de datos de incendios forestales.
 - 7.3.2.- Información meteorológica y predicción del peligro de incendios forestales.
 - 7.3.3.- Mapas de riesgo.
 - 7.3.4.- Información sobre niveles de gravedad potencial de los incendios forestales.
 - 7.3.5.-Medios y recursos asignados al Plan.
 - 7.3.5.1.- Base de Datos de medios y recursos.
 - 7.3.6.- Simulador de Incendios forestales.
 - 7.4.- CLASIFICACIÓN DE LOS INCENDIOS FORESTALES SEGÚN SU GRAVEDAD POTENCIAL
 - 7.5.- DETERMINACIÓN DE LAS ZONAS DE ACUACIÓN

8.- PLANAREN EGITURA ETA ANTOLAKETA

8.1.- PLANEKO ZUZENDARITZA

8.2.- CECOP-CECOPI. SOS-DEIAK

8.3.- BATZORDE AHOLKULARIA

8.4.- INFORMAZIO-KABINETEA

8.5.- AGINTE-POSTU AURRERATUA

8.6.- EKINTZA-TALDEAK

8.6.1.- Sua itzaltzeko taldea

8.6.2.- Segurtasun-taldea

8.6.3.- Osasun-taldea

8.6.4.- Laguntza Logistikoko taldea

9.- ERAGINKORTASUNA

9.1.- ERAGINKORTASUNA LARRITASUN-MAILA 0 DENEAN

9.2.- ERAGINKORTASUNA LARRITASUN-MAILA 1 DENEAN

9.3.- ERAGINKORTASUNA LARRITASUN-MAILA 2 DENEAN

9.4.- ERAGINKORTASUNA LARRITASUN-MAILA 3 DENEAN

10.- OHARREN PLANA

11.- FORU- ETA HERRI-MAILAKO JARDUKETA-PLANAK

11.1.- FORU-MAILAKO JARDUKETA-PLANAK

11.1.1.- Oinarrizko funtzioak

11.1.2.- Eduki minimoa

11.1.3.- Planaren mantenimendua

11.2.- HERRI-MAILAKO JARDUKETA-PLANAK

11.2.1.- Oinarrizko funtzioak

11.2.2.- Eduki minimoa

11.2.3.- Planaren mantenimendua

11.3.- NORBERAREN BABESERAKO PLANAK

11.3.1.- Oinarrizko funtzioak

11.3.2.- Eduki minimoa

11.3.3.- Planaren mantenimendua

12.- BASO-SUTEEN PREBENTZIOA

12.1.- GIZARTE-PREBENTZIOA

12.2.- PREBENTZIO TEKNIKOA

8.- ESTRUCTURA Y ORGANIZACIÓN DEL PLAN

8.1.- DIRECCIÓN DEL PLAN

8.2.- CECOP-CECOPI. SOS-DEIAK

8.3.- CONSEJO ASESOR

8.4.- GABINETE DE INFORMACIÓN

8.5.- PUESTO DE MANDO AVANZADO

8.6.- GRUPOS DE ACCIÓN

8.6.1.- Grupo de Extinción.

8.6.2.- Grupo de Seguridad.

8.6.3.- Grupo Sanitario.

8.6.4.- Grupo de Apoyo/Logístico.

9.- OPERATIVIDAD

9.1.- OPERATIVIDAD EN EL NIVEL DE GRAVEDAD 0

9.2.- OPERATIVIDAD EN EL NIVEL DE GRAVEDAD 1

9.3.- OPERATIVIDAD EN EL NIVEL DE GRAVEDAD 2

9.4.- OPERATIVIDAD EN EL NIVEL DE GRAVEDAD 3

10.- PLAN DE AVISOS

11.- PLANES DE ACTUACIÓN DE ÁMBITO FORAL Y LOCAL

11.1.- PLANES DE ACTUACIÓN DE ÁMBITO FORAL

11.1.1.- Funciones básicas.

11.1.2.- Contenido mínimo de los Planes de actuación de Ámbito Foral.

11.1.3.- Mantenimiento del Plan Foral.

11.2.- PLANES DE ACTUACIÓN DE ÁMBITO MUNICIPAL

11.2.1.- Funciones básicas.

11.2.2.- Contenido mínimo de los Planes de Emergencia Municipales.

11.2.3.- Mantenimiento del Plan Municipal.

11.3.- PLANES DE AUTOPROTECCION

11.3.1.- Funciones básicas.

11.3.2.- Contenido mínimo de los Planes de Autoprotección.

11.3.3.- Mantenimiento de los Planes de Autoprotección.

12.- PREVENCIÓN DE INCENDIOS FORESTALES

12.1.- PREVENCIÓN SOCIAL

12.2.- PREVENCIÓN TÉCNICA

12.3.- PREBENTZIO ZUZENA

13.- PLANAREN EZARPENA ETA MANTENIMENDUA

13.1.- EZARPENA

13.2.- MANTENIMENDUA

1.- Sarrera

«Larrialdien Kudeaketa» gaiari buruzko apirilaren 3ko 1/1996 legeak (EHAAko 77 zenbakia, 1996ko apirilaren 22koa) adierazten du, babes zibila, jardueramultzo gisa planteatu behar dela. Jarduera hauek, aurretik egindako planifikazio ordenatuaren arabera egin behar dira, eta lurralde-mailako planen eta plan berezien artean bereizketa eginez: lurralde-mailako planak, lurralde-eremu bakoitzean gerta daitezkeen larrialdi orokorreari aurre egiteko balioko dute; eta plan bereziek, kasu bakoitzean metodologia tekniko zehatza beharko duten arrisku zehatzei aurre egiteko.

«Larrialdien Kudeaketa» izeneko legea garatzeko, ekainaren 24ko 153/1997 Dekretua onetsi zen, «Larrialdiei Aurregiteko Bidea-LABI» izeneko Euskadiko Babes Zibileko Plana onartzen duena, eta larrialdietarako euskal sistemaren integrazio-mekanismoak arautzen dituena (1997ko uztailaren 21eko 138 zenbakidun EHAA). Aipatutako Euskadiko Babes Zibileko III. Izenburuko V. atalburuan, plangintza bereziari dagokiona arautzen da, bertako 2 eta 4.2 ataletan, baso-suteen ondorioz sortutako larrialdien aurrean plan berezia egiteko premia aurreikusiz, izan ere arrisku horren eragina Euskal Autonomia Erkidegoan handia dela ikusten baita.

Autonomia-gaineko interesa duten kasuetarako babes zibileko estatu-mailako sistemaren berezko plangintzak eragiten du, Baso Suteetarako Larrialdi Plan honek, hura errespetatzea eta harekin bateragarria izatea. Sistema hura, ondorengo atal nagusiek osatzen dute: urtarrilaren 21eko 2/1985 Babes Zibileko legeak; apirilaren 24ko 407/1992 Errege Dekretu bidez onetsitako Babes Zibileko Oinarrizko Arauak; eta 1993ko martxoaren 8an Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez onetsitako Baso-suteen ondorioz Larrialdiko Babes Zibileko Plangintzako Oinarrizko Arauak. Arau honetan hiru plangintza-maila bereizten dira: estatu mailakoa, Elkartea Autonomoen mailakoa eta leku bakoitzekoa.

Baso-suteetako larrialdien aurrean, Administrazio Publikoen jarduketaren plangintzak, administrazio hauetan mendiak eta natura zaintzeko gaietan erabaten den politikarekin eta Lurralde Historikoetako Foru Aldundien jarduketarekin batera joan behar du. Foru Aldundi hauek, zerbitzuak berregituratzeko eta jarduketak dibertsifikatzeko aldia hasi dute Autonomia Erkidegoko eta bertako Lurralde Historikoan Foru Organoetako Erakunde Komunuen arteko azaroaren 25eko 27/1983 legetik ondorioztatutako transferentzien ondoren bereziki. Era honetara, mendien es-

12.3.- PREVENCIÓN DIRECTA. ACTUACIONES

13.- IMPLANTACIÓN Y MANTENIMIENTO DEL PLAN

13.1.- IMPLANTACIÓN

13.2.- MANTENIMIENTO

1.- Introducción.

La ley 1/1996, de 3 de abril, de «Gestión de Emergencias», (BOPV núm. 77, de 22 abril 1996) señala que la protección civil debe plantearse como un conjunto de actividades llevadas a cabo de acuerdo con una ordenada y previa planificación, distinguiendo entre planes territoriales, para hacer frente a emergencias generales que se puedan presentar en cada ámbito territorial y, planes especiales, para hacer frente a riesgos específicos cuya naturaleza requiera de una metodología técnica específica para cada uno de ellos.

En desarrollo de la ley de «Gestión de Emergencias» se aprobó el Decreto 153/1997, de 24 de junio, por el que se aprueba el Plan de Protección Civil de Euskadi, «Larrialdiei Aurregiteko Bidea-LABI» y se regulan los mecanismos de integración del sistema vasco de atención de emergencias (BOPV núm. 138, de 21 de julio de 1997). En el capítulo V del Título III del citado Plan de Protección Civil de Euskadi se regula lo correspondiente a la planificación especial, previéndose en sus apartados 2 y 4.2 la necesidad de elaborar un plan especial ante emergencias por incendios forestales en atención a la incidencia de dicho riesgo en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La integración de la planificación propia en el sistema estatal de protección civil para los casos de existencia de un interés supraautonómico hace preciso que este Plan de Emergencia para Incendios Forestales resulte respetuoso y compatible con aquél, constituido esencialmente por la ley 2/1985, de 21 de enero, de Protección Civil; la Norma Básica de Protección Civil aprobada por Real Decreto 407/1992, de 24 de abril; y la Directriz Básica de Planificación de Protección Civil de Emergencia por Incendios Forestales, aprobada por Acuerdo del Consejo de Ministros de 8 de marzo de 1993, en la cual se consideran tres niveles de planificación: estatal, de Comunidad Autónoma y de ámbito local.

La planificación de la actuación de las Administraciones Públicas ante emergencias por incendios forestales no ha de quedar despareja de la política de las mismas en materia de montes y conservación de la naturaleza, y en tal sentido de la actuación de las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos, que especialmente tras los trasposos derivados de la ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, inician un período de reestructuración de los servicios y

karia, eta interes ekonomikoko eta sortzaileko mendien errenta baztertu gabe, basoen beste bi alderdiak adierazten dira: aisialdiko eta kulturako espazio gisa, eta baliabide naturalak eta basoko bizitza gordetzeko euskarria izatea.

Ondoren erakutsiko dugun taula honetan, basoen egoera orokorraren zenbait datu ematen dira azalaren banaketarekin loturik, eta Eusko Jaurlaritzaren Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako baso-inbentarioaren arabera. Datuak, hektaretan, 1996. urtekoak dira:

diversificación de las actuaciones de modo que, sin desatender la demanda e interés económico y generador de renta de los montes, se explicitan las otras dos dimensiones de los bosques como espacios de ocio y cultura y soporte para la conservación de los recursos naturales y la vida silvestre.

En la siguiente tabla aparecen diversos datos generales de la situación forestal en relación a su distribución superficial, en has., de acuerdo al inventario forestal realizado por el Departamento de Industria, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, datos referidos al año en curso, 1996:

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE
Zuhaitzez betetako baso-azalera	127.315	110.973	121.259	359.547
Soiluneak dituen basoa	16.191	7.282	6.985	30.458
Zuhaitz gabeko basoa (1)	36.775	20.927	21.647	79.349
Sasiak	14.270	13.933	17.533	45.736
Larreak	22.505	6.994	4.114	33.613
Laborantzak (2)	109.368	46.798	52.703	208.869
Lanak	94.840	1.114	1.836	97.790
Belardiak	14.528	45.684	50.867	111.079
Emankorra ez den hiriko lurra	9.128	9.670	15.606	34.404
Emankorrek ez diren urak	3.061	821	1.324	5.206
Emankorra ez den lurra	1.732	1.563	2.199	5.494
GUZTIRA	303.570	198.034	221.723	723.327

(1) Zuhaitz gabeko basoa» atala, ondoren aipatzen diren bi atalen batura da, «Sasiak» eta «Larreak».

(2) Laborantzak» atala, ondoren aipatzen diren bi atalen batura da, «Lanak» eta «Belardiak».

	ÁLAVA	GIPUZKOA	BIZKAIA	CAPV
<i>Superficie forestal arbolada</i>	<i>127.315</i>	<i>110.973</i>	<i>121.259</i>	<i>359.547</i>
<i>Forestal arbolado ralo</i>	<i>16.191</i>	<i>7.282</i>	<i>6.985</i>	<i>30.458</i>
<i>Forestal desarbolado (1)</i>	<i>36.775</i>	<i>20.927</i>	<i>21.647</i>	<i>79.349</i>
<i>Matorrales</i>	<i>14.270</i>	<i>13.933</i>	<i>17.533</i>	<i>45.736</i>
<i>Pastizales</i>	<i>22.505</i>	<i>6.994</i>	<i>4.114</i>	<i>33.613</i>
<i>Cultivos (2)</i>	<i>109.368</i>	<i>46.798</i>	<i>52.703</i>	<i>208.869</i>
<i>Labores</i>	<i>94.840</i>	<i>1.114</i>	<i>1.836</i>	<i>97.790</i>
<i>Prados</i>	<i>14.528</i>	<i>45.684</i>	<i>50.867</i>	<i>111.079</i>
<i>Improductivo urbano</i>	<i>9.128</i>	<i>9.670</i>	<i>15.606</i>	<i>34.404</i>
<i>Improductivo aguas</i>	<i>3.061</i>	<i>821</i>	<i>1.324</i>	<i>5.206</i>
<i>Improductivo natural</i>	<i>1.732</i>	<i>1.563</i>	<i>2.199</i>	<i>5.494</i>
<i>TOTAL</i>	<i>303.570</i>	<i>198.034</i>	<i>221.723</i>	<i>723.327</i>

(1) En el apartado «Forestal desarbolado» se indica la suma de los dos apartados siguientes, «Matorrales» y «Pastizales».

(2) En el apartado «Cultivos» se indica la suma de los dos apartados siguientes, «Labores» y «Prados».

1.- Baso-suteak.

Sua, faktore ekologikoa da. Basoko espezieak, hainbat modu eta bide erabilita, suari egokitzen saiatu dira, bizitzen jarraitu ahal izateko. Euskal Herriko zati handi bateko baldintza klimatikoak ez dira egokienak sute naturalak gertatzeko. Ondorioz, zuhaitz-espezieak ez daude suari egokituak, etengabeko suteen ondorioz pagoari lurra kendu dion basoko pinua eta «Quercus» generoko zenbait espezie (arteak, haritzak) izan ezik.

Kantauriko isurialdeko eta Arabako mendietako baldintza klimatikoak egokiak dira giro hezeetako eta tenperatura-aldaketa handirik jasaten ez duten zuhaitz hostogalkorrenzat. Baso hauek, suak aurrera egitea oztopatzen duten mikroklima hezea sortzen dute, baina ohikoak ez diren baldintzetan aurrera eginez gero, oso ahulak gertatzen dira.

Ezin da gauza bera esan, EAEn aurkitzen diren zenbait landaretza-motari buruz: basoan sortzen diren koniferoek, sasiek edo artadiak, lurraren eta giroaren lehortasunak, eta zoruaren gainean material erregai ugari egoteak, sua zabaltzen laguntzen dute.

Sua aldizka agertzea faktore ekologikoetako bat zen, zenbait prozesu naturalen menpe zegoen faktore ekologikoa: egoera klimatiko jakin bat eta bero kontzentratuko (tximistak, eguzkiaren izpiak) lehenengo fokua elkartzen zirenean gertatzen zen. Ikuspegi hori, ordea, aldatu egin behar da gizakiaren eragina gertatzen denean.

Gizakiaren eragin honek, nahita edo arduragabekeriaren ondorioz, aldizkakotasun natural guztiak hausten ditu, eta ondorioz, sute naturalen aurrean basoko espezien moldaerak bigarren mailan geratzea eragiten du. Gizakiek eragindako suteak maizago gertatzen dira eta bortitzagoak dira. Horien aurrean, estrategia naturalek eta aipatutako moldaerek indarra galtzen dute birsortzeko orduan.

Baso-suteen fenomenoak 60. hamarkadaz geroztik gora egin du. Garai horretan, hiritarrak ibilgailua gehiago erabiltzen hasten dira, eta udan basoetara hurbiltzeko erraztasuna handiagotzen doa, eta honen eraginez, sute-arriskua sortzen dute (beirak, zigarrokinak eta gaizki itzalitako suak, eta abar). Basoak aisialdirako gehiago erabiltzearekin batera landa-inguruneke biztanleek bertatik alde egiten dute. Gertakari honek, egur eta zabor gutxiago biltzea, abeltzaintzarako erabilera txikiagoa, eta basoetan pertsona gutxiago ibiltzea eragin du. Beraz, gero eta jende gutxiago dabilen mendietan erregai gehiago biltzen doa. Beste hainbat arrazoi ere egon daitezke: auzoko liskarrak eta jabetzaren mugak, abeltzantzak bazkatzeko eremu zabalagoen beharra, ehiza-barrutien arazoak, eta abar.

1.- Incendios Forestales.

El fuego constituye un factor ecológico al que las especies forestales han intentado, con diversas estrategias y éxito variable, adaptarse para poder sobrevivir. Las condiciones climáticas de gran parte del País Vasco no propician el hecho de que se produzcan fuegos naturales, por lo que las especies arbóreas no están adaptadas a él, con la excepción del pino silvestre, que ha ganado terreno al haya tras incendios continuados, y de algunas quercíneas (encinas, robles).

Las condiciones climáticas de la vertiente cantábrica y de las montañas alavesas son idóneas para los árboles caducifolios, propios de ambientes húmedos y sin variaciones fuertes de temperaturas. Estos bosques crean un microclima húmedo totalmente opuesto al avance del fuego pero con una vulnerabilidad altísima si lo hace, en ciertas condiciones anormales.

No se puede decir lo mismo de ciertos tipos de vegetación que también existen en la CAPV: las coníferas, los matorrales o los encinares son formaciones forestales que suelen presentar más facilidades para el avance del fuego si se dan condiciones de sequedad de suelo y ambiente y de abundancia de material combustible en la cubierta del suelo.

Visto el fuego como un factor ecológico más, cuya periodicidad depende de las condiciones climáticas y de ciertos procesos naturales que constituyen el primer foco de calor concentrado (rayos, acción solar), se debe cambiar de planteamiento cuando entra en juego la acción de hombre.

Esta acción humana, sea intencionada o sea por negligencia, rompe con toda periodicidad natural y hace que las adaptaciones de las distintas especies forestales ante los fuegos naturales queden en un segundo plano. Ante los incendios provocados por el hombre, de mayor frecuencia y generalmente más violentos, las estrategias naturales y adaptaciones mencionadas pierden su potencial de regeneración.

El fenómeno de los incendios forestales se dispara en magnitud desde la década de los 60, época coincidente con el empleo de vehículos propios por parte de los habitantes urbanos, lo cual posibilita su acercamiento a las masas forestales en época veraniega y crea un peligro de focos de incendios (vidrios, colillas y hogueras mal apagadas, etc.). Paralelamente a este empleo como ocio esporádico de los sistemas forestales se va produciendo un abandono del medio rural por parte de sus pobladores lo que se traduce en una menor extracción de leñas y brozas, un menor empleo ganadero y una menor presencia de personas dentro de las masas forestales, con lo que se va acumulando material combustible en montes cada vez menos vigilados. Otras posibles causas generales, éstas de existencia ancestral, son los litigios de vecindario y de límites de propiedades, las necesidades ganaderas de mayores zonas pastables, los problemas de los cotos de caza, etc.

Nahita sortutako sute horietaz gain, urtearen garai zehatzetan sarri gertatzen dira nahi gabe sortutako suteak: negua pasa ondoren bazkalekua onera ekartzeko erretzearen ondorioz edo uda amaieran uztondoak erretzearen ondorioz, baso-sute bihurtzen dira kontrolatu ezin direnean itzali gabeko sugeldoak geratzean.

Hauek guztiak baso-suteen fenomenoaren ondorio orokorrak dira. Fenomeno hau modu objektiboagoan azter daiteke, «suaren triangelua» deitutakoaren bidez: bero-iturria, airea eta erregaia. Hiru elementu hauek erako magnitudeetan batera gertatuz gero, baso-suteak zabaltzeko baldintza egokiak sortzen dira, mediterraneoko herrialdeetako udako sasoiari gertatzen den edo Euskal Herrian 1989ko abendu zoritxarrekoan suertatu zen bezala.

Bero-iturria, gizakiak nahita (askotan, zenbait puntu une berean piztuz) edo nahi gabe sor dezake: goi-tentsioko lineen erorketak, gaizki itzalitako suak, larre zabalak erretzeak, eta abar.

Gizakia da gehienetan sutearen eragile (Foru Aldundien ustez, 1989ko suteen %90a nahita sortu zen); gizakiaz gain, EAEn berez oso gutxitan gertatzen diren arrazoi naturalak izaten dira suteen eragileak, zenbait urtetan behin gertatu arren. Azken kasu hauen artean tximista da suteen ia eragile bakarra.

Suaren errekaria aireko oxigenoa da. Elementu hau saihestezina da eta, haizearen bidez, sutea gero eta gehiago zabaltzen da gelditu gabe. EAEn oso arrisku-tsua izaten dira Hego haizeko egunak, haize lehorra, eta zenbaitetan, oso indartsua delako; izan ere, (1989ko abenduan bezala) 100 km/h abiadura izatera heldu baitaiteke. Modu honetara, ezerk geratu ezin duen sute-frontea eratzen da.

Erregaia, landare-jatorriko elementu guztiek osatzen dute. Gero eta landare lehorragoak, orduan eta erregai hobea izango da. Beraz, zuhaitzak moztetik geratutako hondakinak, belarkara-geruza lehorra edo botatako zuhaitzak, sutea bideratzeko eta landare-estalkiaren zati bizietara eta hezeetara zabaltzeko material egokiak dira. Argitu gabeko eta garbitu gabeko mendia, erregai-egituraren oso adibide egokia da. Bertan, azaleko sua, azkarrago edo motelago, zuhaitzen goiko zatietara zabaltzeko daiteke (haizearen, sasiaren eta behealdeko adarren eraginez) eta adaburuen sute bihurtu.

Zalantzarik gabe, gertakari hau zenbait espeziatan (pinuak edo arteak) besteetan baino sarriago gertatzen da, baina ezin da ahaztu ez dagoela bakarrik erretzen den zuhaitzik.

Ignizioan (sukoitasuna) hasteko gaitasuna landare-espezie bakoitzaren berezko ezaugarria da, baina adi-

Además de esas causas intencionadas de incendios, es frecuente en ciertas épocas del año la aparición de focos de fuego por negligencia: quemas para regenerar el pasto tras el invierno o quema de rastrojeras al final del verano significan incendios forestales cuando no pueden controlarse o cuando quedan rescoldos sin apagar.

Todas ellas son causas generales del fenómeno de los incendios forestales, fenómeno que se puede analizar de una manera más objetiva, por medio del «triángulo del fuego»: fuente de calor, aire y combustible. Cuando estos tres elementos se unen en las magnitudes favorables se crean unas condiciones idóneas para la generalización de los incendios forestales, como sucede en el verano de los países mediterráneos o como sucedió en el desastroso mes de diciembre de 1989 en el País Vasco.

La fuente de calor puede proceder del hombre intencionalmente (muchas veces encendiendo varios puntos al mismo tiempo) o bien por negligencia: caída de líneas de alta tensión, fuegos mal apagados, quema de pastos que se extienden, etc.

El hombre como causa última de un incendio es el caso más frecuente (Las Diputaciones Forales estimaron intencionalidad en un 90% de los incendios de 1989) y las causas naturales, de por sí infrecuentes en la CAPV, suelen quedar reducidas a un caso cada varios años, en incendios de cierta entidad, siendo la caída de rayos prácticamente la única causa.

El comburente en un fuego lo constituye el oxígeno del aire, elemento que es inevitable y que puede constituir, por medio del viento, un factor de avance irresistible en un incendio. Particularmente peligrosos en la CAPV son los días de viento Sur, al ser un viento seco y en ocasiones muy violento, pudiendo alcanzar (como en diciembre de 1989) velocidades de hasta 100 km/h y constituyendo un frente de incendio que no se detiene ante nada.

El combustible lo forma todo elemento de origen vegetal en magnitud creciente conforme sea más seco, por lo que los restos de corta, el material leñoso, la capa herbácea seca o los árboles derribados son unos materiales idóneos para conducir el incendio y propagarlo a las partes vivas y húmedas de la cubierta vegetal. Un monte sin aclarar ni limpiar constituye un excelente ejemplo de estructura combustible, en la que un fuego de superficie, más o menos rápido, puede propagarse (por acción del viento, del matorral y de las ramas bajas) a las partes altas del arbolado y transformarse en un incendio de copas.

No cabe duda de que este hecho es más frecuente en ciertas especies (pinos o encinas) que en otras, pero hay que tener en cuenta que ninguna de ellas arde por sí sola.

La capacidad de entrar en ignición (inflamabilidad) es una característica propia de cada especie vege-

naren eta urte-sasoiaeren arabera ere dago. Erregaitasuna, landare-egitura bakoitzaren barruan, suaren hedapenaren abiadura da.

Baso-sutea gertatu ondoren, ez dira landare-espezieak hiltzen eta ahultzen bakarrik, izan ere, prozesu biologikoetan eta edafologikoetan aldaketak ere gertatzen baitira. Aldaketa hau zorrotza izaten da, eta urte asko pasa behar dira hasierako baldintzetara itzultzeko.

Kalte ekologiko hauek, suak bertatik igarotzen pasa duen denborarekin proportzionalak dira, eta kalte sozioekonomikoetan neurtzen dira: ez bakarrik jabeak galdutako zura (kantitatea eta kalitatea), baizik eta basoko sistemek duten eta gizarte osoari on egiten dioten babes naturaleko balore guztien murrizketa ere.

Zuhaiztia erre ondoren zuhaitzak ateratzen ez bada, izurrite-plagak eta gaixotasunak sortzen dira alboko masentzat. Beraz, lehenbailehen tratatzea edo moztea komeni da kalte handiagoak gertatzea nahi ez bada.

tal y depende también de la edad y de la época del año. La combustibilidad es la velocidad de propagación del fuego dentro de cada estructura vegetal.

Tras un incendio forestal, no cabe sólo lamentar la muerte o el debilitamiento de las especies vegetales, sino también el cambio en los procesos biológicos y edafológicos, que suele ser drástico, pasando muchos años en volver a recuperar las condiciones iniciales.

La magnitud de estos daños ecológicos es proporcional al tiempo que ha tardado el fuego en pasar y se suele traducir en daños socioeconómicos: no sólo la pérdida de madera para el propietario (cantidad y calidad) sino también la merma de todos los valores de protección natural que los sistemas forestales poseen y que benefician a toda la sociedad.

Un arbolado quemado y no extraído al poco tiempo se convierte en un foco de plagas y enfermedades para las masas vecinas, por lo que conviene tratarlo o talarlo en el plazo más rápido posible si no se desean mayores daños.

EAE-N ERRETAKO AZALERA (zuhaitzez betetako hektareak/guztira)

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE
1985	1.566/2.688	352/1.119	656/1.066	2.574/4.873
1986	249/398	78/197	102/245	429/840
1987	294/406	93/380	116/622	503/1.408
1988	44/136	56/287	64/191	164/614
1989*	1.426/2.185	2.921/6.215	17.176/28.991	21.523/37.391
1990	155/270	234/352	184/277	573/899
1991	205/234	63/171	63/162	331/567
1992	63/151	271/381	380/574	714/1.106
1993	11/159	86/145	136/284	233/588
1994	34/392	24/33	38/61	96/486
1995	102/136	96/429	429/817	627/1.382
1996	52/92	406/592	122/300	580/984

SUPERFICIE QUEMADA EN LA CAPV (hectáreas arboladas/totales)

	ÁLAVA	GIPUZKOA	BIZKAIA	CAPV
1985	1.566/2.688	352/1.119	656/1.066	2.574/4.873
1986	249/398	78/197	102/245	429/840
1987	294/406	93/380	116/622	503/1.408
1988	44/136	56/287	64/191	164/614
1989*	1.426/2.185	2.921/6.215	17.176/28.991	21.523/37.391
1990	155/270	234/352	184/277	573/899
1991	205/234	63/171	63/162	331/567
1992	63/151	271/381	380/574	714/1.106
1993	11/159	86/145	136/284	233/588
1994	34/392	24/33	38/61	96/486
1995	102/136	96/429	429/817	627/1.382
1996	52/92	406/592	122/300	580/984

2.- Planaren helburua.

Baso-suteen arazoa bi aldetatik ikus daiteke; bate-tik, pertsonengan eta ondasunetan baso-suteak sortu-tako berehalako kaltea kontuan hartuz, eta bestetik, basoak suntsitzeak ingurugirorako dakarren kaltea.

Baso-suteek, euren ezaugarri bereziengatik, arazok sor ditzaketela kontuan hartuz, bitartekoen eta baliabideen erabilera koordinatua egin behar da. Horregatik, EAeko Baso-suteetarako larrialdi-plan honen helburuak ondorengo hauek dira: erantzunaren antolaketa orokorra, eta bitartekoen eta berezko titulartasuneko baliabideak zehaztea, bai eta Planari esleitu daitezkeenak eta beste hainbat Erakunde Publikoen edo Pribatuen menpe daudenak ere, EAEn Baso-suteen ondorioz sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko.

Zentzu honetan, eta 4.2 atalean, Plangintza Bereziari buruz, IV. ataleko III. Izenburuan, Euskadiko Babes Zibileko Planaren proiektuak adierazten duen bezala, baso-suteetan jarduteko Foru Planak dira baso-suteak gertatzean mekanismoak antolatzearen arduradunak. Horretarako, Foru Jarduketako Planari Autonomia Erkidegoak eman ahal izango dizkion baliabideak zehaztuko, eta Plan honen zuzendaritza eta koordinazioa ziurtatzeko beharrezko antolaketa-prozedurak bermatuko dira.

3.- Marko Legala.

Euskal Herrirako Autonomia Estatutuak, Euskal Autonomia Erkidegoari eskumen bakarra ematen dio ondorengo gaietan: «Mendiak, basoen ustiapenak eta zerbitzuak, abelbideak eta larreak, Konstituzioko 149.1.23 artikuluan agindutakoaren aurka egin gabe» (Estatutuko 10.8 artikulua) eta «Arrantza barneko uretan, marisko-bilketa eta akuikultura, ehiza eta ibaiko eta lakuko arrantza» (Estatutuko 10.10 artikulua).

Era berean, Autonomia Erkidegoaren eta Bertako Lurralde Historikoen Organo Foralen Guztientzako Erakundearen arteko Loturak, 1983ko azaroaren 25eko, Eusko Legebiltzarreko 27/1983 Legeak, Estatutuaren aurreko eskumenak banatzen ditu, Lurralde Historikoei bere 7. atalean ondorengo eskumenak esleitzen:

a) Lurralde Historiko bakoitzaren erregimen juridiko bakarrarekin bat datorrenari bakarrik dagokiona ondorengo atalean:

«9. Mendiak, aprobetxamendua, basoko zerbitzuak, abelbideak eta larreak, Estatutu Autonomiaren 10.8 atalaren arabera: basozainketa, eta nekazari-

2.- Objeto del plan.

La problemática de los incendios forestales se puede contemplar desde una doble vertiente, por una parte considerando el daño inmediato que ocasiona un incendio forestal en las personas y en los bienes, y por otra teniendo en cuenta la negativa incidencia que tiene la destrucción de masas forestales en el medio ambiente.

En base a que los incendios forestales, por sus especiales características, pueden dar lugar a situaciones problemáticas, es necesario el uso coordinado de los medios y recursos existentes, por todo ello, el presente Plan de Emergencia por Incendios Forestales de la CAPV tiene por objeto establecer la organización general de la respuesta y los procedimientos de actuación de los medios y recursos de titularidad propia, así como de aquellos que puedan ser asignados al Plan y sean dependientes de otras Administraciones Públicas o de Entidades Privadas para hacer frente a las emergencias por incendios forestales dentro de ámbito de la CAPV.

En este sentido y tal como recoge el proyecto del Plan de Protección Civil de Euskadi en su Título III, Capítulo IV, sobre la Planificación Especial, en su apartado 4.2 se cita a los Planes Forales de actuación ante incendios forestales como los articuladores de los mecanismos ante los incendios forestales, determinando todos aquellos recursos disponibles en la Comunidad Autónoma que puedan aportarse al Plan de Actuación Foral y asegurando los procedimientos organizativos necesarios para asegurar la dirección y coordinación del presente Plan.

3.- Marco legal

El Estatuto de Autonomía, para el País Vasco, atribuye competencia exclusiva a la Comunidad Autónoma del País Vasco en: «Montes, aprovechamientos y servicios forestales, vías pecuarias y pastos, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.1.23.^a de la Constitución» (Artículo 10.8 del Estatuto) y en «Pesca en aguas interiores, marisqueo y acuicultura, caza y pesca fluvial y lacustre» (Artículo 10.10 del Estatuto).

A su vez la Ley 27/1983 del Parlamento Vasco, de 25 de noviembre de 1983, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos (LTH), distribuye las competencias anteriores del Estatuto de la siguiente manera, atribuye en su Artículo 7.º a los Territorios Históricos las siguientes competencias:

a) exclusiva, que ejercerá de acuerdo con el régimen jurídico privativo de cada uno de ellos, en:

«9. Montes, aprovechamiento, servicios forestales, vías pecuarias y pastos, en los términos del artículo 10.8 del Estatuto de Autonomía: guardería forestal y

tzako eta basoko zoruen kontserbazioa eta hobekuntza».

b) Guztientzako Erakundeetatik ateratako arauen garapena eta gauzatzea ondorengo ataletan:

«1.- Landare-osasuna; nekazaritza-erreforma eta -garapena; nekazaritza-hedapena, -sustapena eta -gaitasuna; mahastizaintza eta enologia; landare-produkzioa; haziak eta mintegiko landareak.»

«3.- Arrain-hazkuntza kontinentalaren eta zinegetikoaren aberastasunaren aprobetxamendu-erregimena».

c) Guztientzako Erakundearen legearen lurraldean gauzatzeko ondorengo atal hauetan:

«3.- Espazio natural babestuen administrazioa».

«4.- Suteen aurkako defentsa».

Eskumenen aurreko banaketaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzari zegozkion materien transferentzia egin zen Euskal Herriko Foru Aldundietara 1985eko martxoaren 5eko Dekretu bidez.

Plan hau, orain indarrean dagoen marko legalean kokatzeko, ondorengo estatu-arauak ere aipatu behar dira:

- Abenduaren 5eko 81/1968 legea, Baso Suteei buruzkoa.

- Abenduaren 23ko 3.769/1972 Dekretua, Baso Suteen Legearen araudia onesten duena.

- Irailaren 26ko 2761/1980 Errege Dekretua, natura babesteko gaian, Estatuak EAeri funtzioak eta zerbitzuak transferitzeari buruzkoa.

- Urtarrilaren 21eko 2/1985 Legea, Babes Zibilarri buruzkoa.

- Apirilaren 2ko 7/1985 legea, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituena.

- Uztailaren 29ko 875/1988 Errege Dekretua, baso-suteak itzaltzeagatik sortutako gastuen ordaina arautzen duena.

- Uztailaren 29ko 407/1988 Errege Dekretua, baso-suteak itzaltzeagatik sortutako gastuen ordaina arautzen duena.

- Barne Ministerioaren 1993ko apirilaren 2ko ordena, 1993ko martxoaren 18ko Ministro Kontseilutik ondorioztatutako Erabakia, Baso-suteen ondoriozko larrialdietako Babes Zibileko Plangintzako Oinarriko Norabidea onartzen duena.

Eta ondorengo arau autonomikoak:

- 1979ko abenduaren 19ko Legea, Euskal Herriko Estatutuarena.

- Azaroaren 25eko 27/1983 Legea, «Autonomia Erkidegoaren eta Bertako Lurralde Historikoen Or-

conservación y mejora de los suelos agrícolas y forestales».

b) de desarrollo y ejecución de las normas emanadas de las Instituciones Comunes en:

«1.- Sanidad vegetal, reforma y desarrollo agrario, divulgación, promoción y capacitación agraria, viticultura y enología, producción vegetal, salvo semillas y plantas de viveros.»

«3.- Régimen de aprovechamiento de la riqueza piscícola continental y cinegética».

c) de ejecución dentro de su territorio de la legislación de las Instituciones Comunes en:

«3.- Administración de espacios naturales protegidos».

«4.- Defensa contra incendios»

Como consecuencia de la anterior distribución de competencias, se produjo la transferencia de las materias correspondientes del Gobierno Vasco a las Diputaciones Forales del País Vasco por Decreto de 5 de marzo de 1985.

Para poder situar el presente Plan dentro del actual marco legal, caben citar además las siguientes normas estatales:

- Ley 81/1968, de 5 de diciembre, de Incendios Forestales.

- Decreto 3.769/1972, de 23 de diciembre, por el que se aprueba el reglamento de la Ley de Incendios Forestales.

- Real Decreto 2761/1980, de 26 de septiembre, sobre traspaso de funciones y servicios del Estado a la CAPV en materia de conservación de la naturaleza.

- Ley 2/1985, de 21 de enero, sobre Protección Civil.

- Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

- Real Decreto 875/1988, de 29 de julio, por el que se regula la compensación de gastos derivados de la extinción de incendios forestales.

- Real Decreto 407/1988, de 29 de julio, por el que se regula la compensación de gastos derivados de la extinción de incendios forestales.

- Orden de 2 de abril de 1993, del Ministerio de Interior, derivada del Acuerdo del Consejo de Ministros de 18 de marzo de 1993, por la que se aprueba la Directriz Básica de Planificación de Protección Civil de Emergencia por Incendios Forestales.

Y las siguientes normas autonómicas:

- Ley de 19 de diciembre de 1979, del Estatuto de Autonomía, para el País Vasco.

- Ley 27/1983 de 25 de noviembre, de «Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad

gano Foralen Guztientzako Erakundeen arteko Lotu-
rei» buruzkoa.

- Martxoaren 8ko 34/1983 Dekretua, «SOS-
DEIAK» Koordinazio Eraginkorreko Zentroen sorre-
rari buruzkoa.

- Ekainaren 16ko 16/1994 Legea, Euskal Herriko
Naturaren Kontserbazioari buruzkoa.

- Otsailaren 27ko 42/1996 Dekretua, Euskal He-
rriko Autonomia Erkidegoko Babestutako Gune Na-
turaletako Sarearen Erregistroaren antolaketari eta
funtzionamenduari buruzkoa.

- Maiatzaren 14ko 108/1996 Dekretua, Eusko
Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Egitura Organi-
koa onartzen duena.

- Apirilaren 3ko 1/1996 Legea, Euskadiko La-
rrialdietako Kudeaketari buruzkoa.

- Ekainaren 24ko 153/1997 Dekretua, «Larrial-
diei Aurre egiteko Bidea-LABI» izeneko Euskadiko
Babes Zibileko Plana onartzen duena eta Larrialdiak
Jasotzeko Euskal Sistemaren integrazio-mekanis-
moak arautzen dituena.

4.- Definizioak.

Plan honen xedeetarako ondorengo definizioak
hartzen dira kontuan:

- Kartografia ofiziala: Kartografiaren Antolamen-
duko 7/1986 Legearen preskripzioei lotuta, Erakun-
de Publikoek edo euren zuzendaritzapean eta kon-
trolpean egindakoa.

- Planeko Zuzendaria: Plana zuzentzeko eta koor-
dinatzeko organoa.

- Ekintza Taldeak: Behin-betiko eta funtzio zeha-
tzekin osatutako zerbitzu eraginkorren multzoa. Zer-
bitzu hauek, larrialdia gertatzen den lekuan esku
hartzen dute.

- Kontrolpeko sutea: Isolatu den, eta hedatzen ge-
ratu den sutea da.

- Itzaltako sutea: Sutearen perimetroan, jadanik
sutan materialik ez dagoenean eta berpizteko aukera-
rik ez dagoenean.

- Baso-sutea: Basoan barrena kontrolrik gabe za-
baltzen den sua, erre behar ez zen landaretza kalte-
tuz.

- Arrisku-mailak: Eremu zehatz batek baso-sutea
gertatzeko arriskuaren balio adierazgarriak.

- Mobilizazioa: Bitartekoak, baliabideak eta zer-
bitzua martxan jartzeko lan-multzoa, baso-suteen
aurka aritzeko.

- Aginte-postu Aurreratua: Sutea kontrolatzeko
eta itzaltzeko lan zuzendaritza teknikoko postua,
sutearen ondoan kokatua.

- Ekintza Taldeetako arduradunak: Ekintza-tal-
deen jarduketan koordinatzailea.

Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios
Históricos».

- Decreto 34/1983 de 8 de marzo sobre la creación
de los Centros de Coordinación Operativa «SOS-
DEIAK».

- Ley 16/1994, de 30 de junio sobre Conservación
de la Naturaleza del País Vasco.

- Decreto 42/1996, de 27 de febrero, sobre orga-
nización y funcionamiento del Registro de la Red de
Espacios Naturales Protegidos de la Comunidad Au-
tónoma del País Vasco.

- Decreto 108/1996, de 14 de mayo, por el que se
aprueba la Estructura Orgánica del Departamento de
Interior del Gobierno Vasco.

- Ley 1/1996 de 3 de abril, de Gestión de Emer-
gencias de Euskadi.

- Decreto 153/1997, de 24 de junio, por el que se
